

Aretxabaleta,
1993ko apirilak 29

Aretxagazeta



Krisia gure artean

• Berri-zahar
taldea

• Pertsonaia:
Ibon Errasti

• Kirolak:
*Otalazelaiko
Krossa*



"Atxabaltan planteatzan den errokarik haundiena Austriako harremanetan datza."

Udaletxeko lan boltsa

Inguruko egoera sozio ekonomikoari buruz Beinkek antolatu zuen hitzaldi interesgarri hartan bota zena gogoratzen badugu, garbi utzi zen krisialdi honetatik urtete ko bai langilearen aldetik, bai enpresen aldetik, eta baita instituzioen aldetik ere esfortsu baterakoa egin beharko litzatekeela.

Horrela bada, zer egiten ari da Atxabaltako Udala hala edo hola enplegua suspertzeko?

Lehendabizi edozertan hasi aurretik, Atxabaltan zenbat langabetu dauden, zer kualifikazio duten, zer espektatiba, nortzuk diren jakiteko eta berauei orientazio pertsonal bat emateko, lan boltsa bat osatu zen joan zen urte bukaeran. Horrekin batera, 6 hiletako lan prosezua baten ondorioz, Dorleta Belategik Atxabaltari buruz ikerketa sozio-ekonomikoa burutu zuen, bertako egoera analizatu eta bere potentzialitateak aurkeztuz.

Hasiera bezala guzti hau

hartuz, proiektu batzuk aurrera atera nahi dira.

Lehenengo arloan, mankomunitatearekin lan bateratu bat eginez urtero heziketa okupazionalari buruzko eta erreziklari buruzko ikastaro batzuk eskaintzen zaie Atxabaltako langabetuei. Orain dela hila bete eskas komertzial teknikarien ikastaroa bukatu zen eta jadanik bagaude komertziantz txikiendako erreziklaziozko beste bat gertatzen. Komertzialen ikastaroko partaide batzuei enpresetan praktikak lortu zaizkie, eta besteren batek bere kabuz bilatu du.

Gainera Austriara alemaniera ikastera joateko talde bat osatu nahi da, alemanak etorkizun hurbilean izango duen garrantzia kontutan izanik, behar bada nolabaiteko beken batzuk ematea planteatuko litzateke.

Enplegu arloan, Udalak aspaldian enprekin izan ez dituen kontaktu txiki batzuk izan ditu. Praktikak direla eta,

laguntza eskatu zaie, gure lan boltsaren berri ere eman zaielarik, edozein momentutan erabil dezaketela azalduz. Kontaktu hauek aurrerantzean sarragoak izatea espero da, enpresei Udaleko proiektuen berri emanez.

Bestalde herrian partikularrek izan dezaketen autoenpleguzko aktibitateak martxan jartzeko aholkua ere, ahal den heinean, udaletxean aurki dezakete.


Baina Atxabaltan planteatzan den errokarik haundiena Austriako harremanetan datza. Orain arte hartueman hauek folkloriko eta kulturalak izan dira, baina orain lan-kidetza hau arlo ekonomikora eta enpresa arlora zabaldu nahi da. Ez dakigu Austrian zer aurkituko dugun, baina harreman hauen ondorioz behar bada lanposturen batzuk sortu ahal izango ditugu eta hori da lortu nahi dena.

Marta Madinabeitia
Udaletxeko enplegu teknikaria

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabalea Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Badaukazu irakurtzeko ohiturarik ?



Igor Blazquez
(Ikaslea)

Bai, nobelak eta bizikletari buruzko aldizkariak irakurtzen ditut normalean. Abentura nobelak gustetan zaizkit.



Ainhoa Iturrikastillo
(Ikaslea)

Bai, abentura liburuak eta aldizkariak irakurtzen ditut. Gustetan zait irakurtzea, nahiz eta askotan behartuta irakurri.



Eneka Guenetxea
(Ikaslea)

Ez daukat ohitura haundirik, baina gabetan lo gura sartzeko irakurtzen dut. Nobelak diru gehien irakurtzen ditudanak, abentura nobelak.



Imelda Blaquez
(Ikaslea)

Bai, normalean bai. Abentura liburuak irakurtzen ditut gehienbat. Gustokoa dut irakurtzea eta batez ere gabetan irakurtzen dut.

KARTAK

Tele-basura

Lehen ez genuen arazorik telebista ikusteko. Ia, ia, kanal bat besterik ez geneukan eta.

"Orain dela gutxi" telebista pribatuak hel-tzen hasi zaizkigu. Edozein gauza egiten dute elkar desakreditatzeko.

Baina kanalen arteko gerra, noraino iritsi da?. Adibidez, ikusi genuen show bat lotsagarria izan zen: nola erabili zuten familia batzuen mina, ikusle gehiago lortzeko. " Quién sabe dónde " orain dela urtebete jai ozen, baina orain dela gutxi arte ez nuen bere berririk. Zergatik?. Orain arte ez direlako suposatzen duen negozio ikaragarriaz jabetu.

Alcacerren gertatu zenarekin pasatu egin ziren. Lotsagarria izan zen. Diru pilo bat irabazi zuten. Kontutan hartzen badugu, programa berezi honetan agertzearen normalean baino gehiago ordaindu behar izan zutela.

"Tele-emoción" deitzen da. "Tele-basura" deituko nioke nik.

Geu ere, errdudunak gara ikustearren. Krisialdi batean gaude murgilduta eta gure politikoei nolabait esateko badute zer esanik, baina nahiago dugu bestea ikusi debate politiko bat baino.


Programa horiek egiten dutenek "servicio

público" bat dela esaten dute, baina familien arazoak aineratzen zituztela iruditu zitzaidan. Nere ustez etxeko sua etxeko hautsez estali behar da, ez daukagu zertan elikatu behar gure morboa besteen arazo familiarren berri izanez.

Zenbait herrik ezagutzen dituzte dagoeneko horrelako telesaioen ondorioak, Iruñeak adibidez. Ez dagoen lekuan mamuak ikusten hasiak ote gara?. Horrelako programak ikusi baino hobe litzateke liburu polit bat hartuta denok ohera joango bagina.

Euskaltegiko 9. urratseko ikasle bat.

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitetzte, zuen karten zain gaude eta.



Liburuaren eguna

Apirilaren 23an liburuaren eguna izan zen. Hori dela eta Udal Liburutegiak Atxabaltako herriari eskeintzen dizkion zerbitzuen berri eman gura du.

Udal Liburutegian informazioa, kultura eta entretenigarriak aurkituko dituzu. 15.000 liburu inguru daude: kontsulta liburuak, antzerkia, poesia, nobelak, komikiak eta haurrentzako liburuak; bertan

irakurri edo etxera eramateko. Eta aldizkari interresgarriak irakurtzeko aukera ere bai.

Dena den, egokien zuzen begiekin ikustea izango da eta hemendik zerbitzu hori ezagutu eta erabil dezazuen gonbidatuta zaudete. Otolara 1ean (udaletxeko lorategi ondoan) aurkituko duzue. Astelehenetik eguekotxera, 5.30etatik 8.30etara, aurkituko duzue zabalik.

Doke txapelketa

Eguakotx Santuan, arratsaldeko 6.30etan, bolatokian Udalaren eta Abesbatzaren arteko doke txapelketa izan zen.

Txapelketan, antxoak

eta edariak zeuden jokoa eta korukoak izan ziren irabazleak.

Ea datorren urtean jende gehiago animetan den.



Otalazelai 93

Aurten ere, urtero moduan, Otalazelai eguna ospatuko da. Maiatzaren 9an XV. kross Herrikoa egingo da Urkuluko urtegian.

Maiatzaren 16an ekintza ugari izango dira:

10etan Atxabaltako txistulariekin kalejira eta 10.30etan ikaste-txeen bizikleta urteera.

11etan Herriko Bandaren ekitaldia Durana Kanean eta 11.30etatik ordu batetara animaliekin jokoak eta ordu batetan bertsolariak.

Ordubatek erdian Herriko Bandaren ekitaldia eta gero 5etan Loramendi Dantza taldearen eskutik dantzaldiak eta gero 6.

sokatira txapelketa.

6.30etan patata tortila txapelketa. Antolatzaileek osagai hauek ipiniko dituzte: patatak, arrautzak, kipula, olioak, gatza. Gainontzeko osagaiak partehartzaileek ipini beharko dituzte.

6etatik 8.30etara Atxabaltako Bandaren dantzaldia Otalazelain.

Horretaz gain 11.30etatik arratsaldeko 5ak arte umeentzako Gaztelu puzgarria izango da eta gero gabeko 9.30etatik 12.30etara Durana Kanean dantzaldia izango da Saltsamaltza taldearekin.

Egun horretan bertan bazkaltzera animatu zaitezte.

IZOTZ TABERNA

MITARTE KALEA
☎ 79 73 65



Bere Bezeroen zerbitzura
Mitarte, 16
☎ 79 01 72



MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

Otolara Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA

BITXITEGIA



Berri-zahar Taldea

Gure inguruan ezagu-
na da "ez daukanak ba-
daki, eukitzea zein den
ona" esaldia.

Antzekoa gertatu izan
da euskaldun barrien ka-
suan ere. Batzuk familia
barri batera sartu gura eta
gizarteak barriz, ez du ja-
kin izan jende barri horren
integrazio bide horretan
eusgarri iraunkorrak jar-
tzen.

Zoritxarrez, euskaldun
barrien gaia euskaltejiko
auckerari zuzenean lotu-
takoa izan da, batez ere.

Gai horri lotutako ora-
in arteko ekimenez gain
motore barri bat agertu da:
Beinke elkartearen barruan
gauzatzen dabilen BERRI-
ZAHAR lantaldea. Talde
horren aurkezpena apirila-
ren 23an izan zen.

Helburu luzekoa; eus-
kaldun barriak euskaraz
gizarteratzen laguntzea.

Labur esanda, lagun
berriak egiteko bideak jar-
tzen saiatzea ekintza
samur eta alaien bitartez,
eurak antolatzaile eta
partaide nagusi izanaz.

Kezkatan zeuden zein
izen jarri, izenari ohore
egingo dion zerbait gura
zuten eta horretan bi ad-
jetibo horien ordenak us-
tez zeharo aldatzen zuen
panorama.

ZAHAR-BERRI jarri
izan ezker, hizkuntzari
ematen zitzaion lehenta-
suna; zaharra berri. Bes-
tera berriz, BERRI-ZAHAR,
euskaldun barria bera da
azaletik mamira pasetan
dena. Biak ere beharrezko
duda barik.

Peregrinazioak Lourdesera

Aurten ere izango dira
Lourdeserako peregrina-
zioak, bi hain zuzen ere.
Bata Atxabaltako parrokiak
antolatutakoa eta bestea
eliz barrutiak antolatuta.

Eliz barrutiak antolatu
duena maiatzaren
21,22,23 eta 24ean izan-
go da. Horren prezioa
8.220 pztakoa da eta ize-
nak apirilaren 30a baino
lehen eman behar da.

Atxabaltako parrokiak
bidaia bi antolatu ditu,
bata bi egunetakoa eta
bestea egun bakarrekoa.

Bi egunetakoa maia-
tzaren 23an izango da,
goizeko 5.30etan urtenaz,
eta horren prezioa 7.500
pztako da, autobusa eta
hotela ordaintzeko.

Bestea maiatzaren
22an da eta urteera goi-
zeko 5.30etan izango da
eta etorrera gabean.
Prezioa 2.000 pztakoa da,
hemen bidaia bakarrik
sartzen da.

Hauetako bateron ba-
tean joan gura dutenek
euren izena lehen bait le-
hen eman dezatela eska-
tzen da.

- Maitzak
5ean, Udal-Esko-
laurreko guraso
elkartekoek an-
tolatuta, arrat-
saldeko 6.15etan
kultur etxeko bi-
deo gelan hitzal-
dia izango da.
Haurren elikadu-
rari buruzkoa
izango da eta
Juan Ramon
Ugartek emango
du.

- Maiatzak
5ean Udaletxeko
ganbaran arrat-
saldeko 7etan
Elkarri tailer lo-
kalaren prents-
aurrekoa izango
da.

- Deba Ga-
raiko Udal Kiroi
Zerbitzuak anto-
latutako saltza
ikastaroa hasiko
da. Irakaslea Ar-
naldo Patterson
izango da. Ikas-
taroa maiatzak
17tik 28ra arte
emango da Kiroi
Etxean eta ordu-
tegi desberdinak
daude.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39



Erropak eskaera bosniarrendako

Bosniarren aldeko taldeak udaberriari begira erropen faltan daude eta, eskari berezia egin dute.

Erropak eta oinetakoak eskatu dituzte:

• Gizonezkoak:

Zapatak: 41, 42 eta 45 zerbakidunak.

Frakak: 45, 50, 52 eta 54 zerbakidunak.

Alkandorak: 39, 42 eta 45 zerbakidunak.

• Emakumezkoak:

Zapatak: 36, 37, 39 eta 40 zerbakidunak.

Frakak: 38, 40, 42, 44 eta 48 zerbakidunak.

Alkandorak: 40, 42,

44, 46 eta 48 zerbakidunak.

• Mutikoak:

Zapatak: 36 eta 37 zerbakidunak.

Frakak: 14 eta 16 zerbakidunak.

Alkandorak 16 zerbakidunak.

• Neskak:

Zapatak: 36 eta 37 zerbakidunak.

Frakak 16 zerbakidunak.

Alkandorak 16 zerbakidunak.

Emateko zerbait daukanak Eskoriatzako San Blator edo Basotxora eroan dezake.

Maiatzean antzerki hilabetea

Maiatzean Atxabal-tan antzerki hilabetea egingo da.

Hori dela eta, talde desberdinen lanak ikusi ahal izango ditugu.

Gure herrian izango diren taldeak hauek izango dira: Trapu Zaharra, Peter Roberts, Louvier's, Bederen Bat eta Nake.

Aste Santuko lapurretak

Aste Santuan lapurretak izan ziren Atxabal-tako zenbait lekutan. Lapurreta horiek egun desberdinetan izan ziren apirilaren 8 eta 9 eta 10eko gabetan.

Bestalde, apirilaren 9an kotxe bat ere lapur-

tu zuten eta gero Arlaban inguruan agertu zen, nahiko egoera txarrean.

Ertzantzarengandik jaso dugun informazioak dioenez, lapurreta horien susmagarriak Bilbon atxilotu zituzten.

Foru Aldundikoen bisita

Datorren eguako txean, apirilak 30, Foru Aldundikoen bisita izango dugu Atxabal-tan, hirigintz-ekintzen eta ekintza ekonomikoen koordinazioa indartzeko.

Koordinazio hori honako puntu hauetan banatuko da:

• Herriko industrialdearen inguruan egin den hirigintz-informa-

zioari buruzko dokumentuaren azterketa.

• Interes bereziko herriko eremuak industria eta ingurugirako.

• Herriko baliabideak industriaren garapenerako: Arinsa, Asesa eta beste batzuk.

• Austriarekiko harremanak. Ekimenak.

• Herriko langabe-tuen estadistika.

Unai proiektuaren azken berriak

Inaxio Galdosen azken berriak jaso dituzte 3. munduko taldekoek. Unai proiektuak izan duen aurrerapen eta garrantzia kontatzen du.

Proiektuak lana eman eta lurrak hobetu dituzte pozik daude, eta beste alkate batzuk ere laguntza eskatu diete.


Orain arte 10 eskola bazeuden, orain beste bi

zabaldutuzte. Putzuak ere egin dira eta horrek ere eskulan asko eskatzen duenez lana izan da.

10 putzutuan ura topatu da, oraindik gehiago sakondu behar dute ur gehiago topatzeko. Orain bonba hidraulikoek beharra daukate. Bonba bakoitzak 50.000 pezeta balio du eta horretarako laguntza eskatzen dute.

Jende askok izaten ditu etxean makramez egindako lorontzi eta tapizak. Eskoletan ere askotan ikusi ditugu haurrek makramez egindako gauzak.

Oraingoan makrameari buruz zerbait gehiago jakin guran Jonan Mendietaekin izan gara. Jonanek makrame-rako afizioa orain dela 10 urtetik dauka. Afizio horretatik diru asko atara ez arren, berari eguneko ordu asko kentzen dion hobbya da.



Jonan Mendieta, makramea lantzen

Noiztik daukazu afizio hori?

• Duela 10 urtetik, gutxi gorabehera.

Zein izan da zure maisua eta non ikasi zenuen?

• Nire lagun bat "mazetero" bat egiten zebilen; ikusi nuenean gastatu egin zitzaidan eta berdin egiten saiatu nintzen. Hain ondo urten zidan gehiago egitea erabaki nuela. Makrame

egiten duten lagunak dauzkat, eta eurei eta aldizkariari esker jarraitu egin dut honekin.

Nondik dator makramea, eta zela lantzen da?

• Arabiatik datorren arte bat da. 5 edo 6 korapilo egiten ikasi behar da eta gero nahastu egiten dira konbinazioak egiteko; horrekin eta imajinazioarekin oso lan ederrak egin daitezke. Pazientzia

handia ere behar da.

Zenbat denbora dedikatzen diozu?

• Enkargu bat euki ezkeru, eguneko 3 ordu.

Garestia da?

• Materiala ez da hain garestia, baina badakizue azkenean esku lan guztiak garesti urteten dutela.

Enkargu asko daukazu?

• Bueno, batzuk. Baina nik ia beti enkarguz

lan egiten dut, eta hori hobe da niretzat.

Orain zer egiten ari zara?

• Bai, "mazetero" bat egiten nabil, eta beste enkargu bi ere badauzkat.

Afizio hori galtzeko arriskuan ikusten duzu?

• Ez, makrame egiten duen jende asko dago, eta ikastaroak oso potentziatuta daude.

Ikastaroak ematen dituzu?

• Bai, baina behin bakarrik, Aretxabaletako gatzetxean 3 hilabete-ko ikastaro bat eman nuen.

Zure etxean zeresaten dizute?

• Nire gurasoek asko animetan naute.

Zelako gauzak egiten dituzu?

• Lanparak, tapizak, mazeteroak eta gehienbat kortinak.

Eta gatzak dira?

• Ez, ez dira gatzak; nahiz eta tapizak lan asko eskatu.

*E. Vazquez
R. Velasco*

ANGELINES

Autoserbitzua



Mitarte, 16

Tfnoa : 79 61 42




LENIZ

Liburudenda

Jostailuak
papertegia
idaztegi gaiak

Herriko plazan

☎ 79 16 16



EGUZKIGRAF

INPRIMATEGIA

Aldizkariak

Inpresioak

Bulegoko materialak

Basabe poligonoa, A-2-7 Tfnoak 79 29 41 Fax 79 18 44

Apirilaren 6an Beinkek antolatutako mahaingurua bilarrako egoera sozioekonomikoa eta langabezia aztertu ziren. Hizlariak Juan Mari Otxoa, Anton Mendi-zabal eta Jesus Mari Herrasti izan ziren; eta nodertzailea Anjel Mari Errasti.



Krisia mahai gainean

Mahai inguruko sarre-ra Anjel Mari Errastik egin zuen eta berak, bailarako eta Atxabaltako egoera aztertu zuen batez ere.

Anjel Mari Errasti:

"Gure herria, munduko beste herri aurreratuen moduan krisian dago. Euskal Herrian egoera ekonomikoa larrituz doa Europako batasunaren ondorioz. Azken 10 urteotan, Euskal Herrian 3 lanpostutatik bat galdu da eta langabezi tasak % 20 inguruan ibili dira eta orain gorantza doaz. Gainera, gure aberastasuna Estatu-ko beste probintziekin konparatuz nabarmenki jaitsi da.

Gure bailarako sektorerik garrantzitsuena industria da, langileen % 65a enpresa industrialetan, % 30a zerbitzuetan, % 3a eraikuntzan eta % 2a lehen sektorean.

Industrian honako bilakaera hau ikusten da:

- Elkarte Anonimo industrialei dagokienez, azken 10 urteotan 2.591 lanpostu, % 25a galdu da.

Enpresa asko egoera larrian daude, enplegu erregulazio espedienteak dituzte eta enpresa garrantzitsuenek aurkeztu dituzten bidegarritasun plangintzen arauera enplegua % 10ean gutxituko litzateke.

- Kooperatiba industrialek aurreko krisian hobeto egin diete aurre eta azken 10 urteotan 340 lanpostu, % 4a galdu dute. Baina, gaur egun, egoera bestelakoa da. Kooperatibek bazkide asko alde aurretik jubilatzen dituzte, langileek egutegi mobilekin dabilza eta beste batzuk langabezia daude. Ez da enplegu barririk sortzen. MCC taldean 1992rako enplegua batz besterik % 4a jaitsiko zela iragarrita zegoen. 1993rako % 3a jaitea espero da."

Ondoren Juan Mari Otxoak munduko ekonomiarik buruzko ikuspegi orokorra eman zuen.

Juan Mari Otxoa:

"Krisiak ez dira barririk, historian zehar beti

eman dira.

Krisiaren arrazoiak:

- Estatuaren zorrak haundituaz joan dira.

- Interes altuak. Marko alemaniarra da Europako sistema ekonomikoa "moneda ancla". Eurek interesak ez badituzte jaisten, guk ezin dugu ezer egin. EEBB eta Japonian interesak jaitsi dituzte eta ekonomia saneatzen hasi da.

- Europako sistema monetarioaren egoerari dagokionez, guk momentuz diruagatik prezio haundiagoa ordaindu behar dugu.

- Konpetitibitatea. Azken urteotan 23 puntu galdu ditugu. Inflazioa altuagoa, soldadak larregi igo eta konpetentzia asko galdu da. Japonen, azken 10 urteetan soldadak ez dira igo.

- Langabetuen kopurua gehitzea. Nik uste dut ez dagoela gogo handirik EEBBko neurri gogorak hartzeko, ez bada diru hartzen krisia luzeago izango da. Politikoei erantzunkizun handia dute krisi honetan. Baita enpresarietara eta sindikatuek ere. Orain arte, elkarrierrua botatzen ibili dira, baina guztiek dute erantzunkizuna.

Alde batetik, estatuak euren gastuak hobeto administratu behar ditu. Enpresarietara, toki askotan, azken 6-7 urteotan diru asko irabazi dute eta datorren ziklo berrirako ez dira gertatu. Azkenik, ez dut ulertzen momentu ho-

" Ez da enplegu barririk sortzen. MCC taldean 1993rako % 3a jaitea espero da"

netan, sindikatuen eskara garrantzitsuen soldaten igoera izatea.

Bestalde, beharrezkoa da klima egokia lortzea, eta hori, faktore politiko-ekonomiko-sozialen menpe dago. Hori denon artean sortu behar da."

Jesus Mari Herrastik, barriz, Deba Garaiko ebo-luzioa aztertu zuen.

Jesus Mari Herrasti:

"Deba Garaiko biztanlegoa aztertu ezker, langabeziak gora egin badu ere, Euskal Herriko beste eskualdeen aldean, langile okupatu gehiago daudela konturatzen gara. Krisi egoeran bizi gara, baina arraroa izan da 10 urtetako garapena. Historian normalean horrelako egoerak eman dira.

Industriak du pisu haundiena eta zerbitzuek pisu gutxiago dute, adibidez Gipuzkoarekin konparatuz. Gipuzkoan enplegu erdia zerbitzu sektoretan dago kokatuta, Deba Garaian % 30a.

Hemendik aurrera zer egin behar da? Guk ze borondate, indar, ahalmen dugu urteteko?. Gure buruarengan konfidantza dugu? Erantzuna gata da. Baina, zerbait badugu pertsonok. Pertsonen formazioak azken 20 urteotan salto handia eman du. Formazioan diru asko inbertitu da. Formazioa duten pertsonak konprometuz bat hartu behar dituzte, enpresak sortzeko, etb.

Beste balore batzuk ere baditugu, solidaritatea, lurraldetasuna. Arazoa



antolatzea da. Denok konprometuz bat hartu behar dugu, bestela arazoaren urtenbidea zaila da.

Batetik denok posizioa hartu behar dugu, ezin gaitzek inoren konponbideei itxoi ten egon. Bestetik, dauden enpresa inportanteak nahiko dute konpetibitatea mantentzen, lortzen eta Europan kokatzen.

Gero, Administrazioari giro bat sortzea eskatu behar zaio, adibidez komunikabideak egokitzea.

Kooperatiben etorkizuna urte batzuk barru ez dut argi ikusten. Momentu honetan inork ez daki zer gertatuko den, epe luze-rako plangintzak ez dira burutzen: hemen gaude, ez dago konponbide segururik, piskanaka-piskanaka kanpora zabalduz joan behar da. Lanpostuek jarraituko dute."

Azkenik Anton Mendizabalek krisiaren ikuspegi soziala aztertu zuen.

Anton Mendizabal:

"krisia ezin dugu bakarrik ekonomikoki aztertu, gizakion dimentsio ekonomikoa, soziala, poli-

tikoa, kulturala eta linguistikoa hartu behar dira kontutan.

Krisi egoeran batzuk zeharo sufritzen dute eta beste batzuk, ez dira konturatu ere egiten, sekula baino hobeto bizi dira.

Gure egoera ekonomikoa oso larria da, baina hazkunde ekonomikoa egiterakoan orokorrean pentatu behar dugu.

Horretarako, ahaleginek amankomunak eta partehartzaileak izan behar dute. Ez daukagu guk gura dugun gizartea diseinatzeko aukerarik. Giza kapitalaz baliatzea ezinbestekoa da.


Berandu hasi gara neurriak hartzen, ez dugu arazoa ikusi edo logika desberdina dugu. Sindikatuek, europear bereziak garelara uste dute, hauek baino birmoldaketa gogor-rragoa euki dugu eta hauen berrindustrializazioa ez dugula izan. Ez dugu euren babes soziala.

Bestalde, beharrezkoa da sektore publikoak inplikatzeko. Udalek, orain arte egindako ekimenak mantendu eta indartu behar dituzte. Eskualdeko garapen agentzia, soldata arrisku programak.... Inportantea da sortutako ideiak bideratzea. Ideien fluxua elementurik konpetitiboena izan daiteke.

Eskualdean egoera soziala garatu behar da. Erabiltzen diren errekursoak eta gure beharrak konparatuz gero, gure egoera soziala oso baldintzatuta dago. "

" Denok hartu behar dugu konprometuz, bestela arazoaren irtenbidea gata da "

Telebistan gero eta pelota partidu gehiago ikusten gabiltza eta gero eta indar gehiago hartzen dabil. Atxabaltan ere badauzkagu pelotari onak eta txapeldu-nak. Horreitako bat Ibon Errasti da. Ibonek 20 urte dauzka eta Euskadiko liga irabazi zuen. Gero Euskadiko txapelketa jokatu eta hor galdu egin zuen, baina hala ere maila onean dagoela erakutsi digu.



Ibon Errasti, Euskadiko ligako irabazle

• **Noiz hasi zinen pelotan jokaketan?**

• 5 edo 6 urterekin jolasten nuen pelotan, baina partiduak jokaketan 8 edo 9 urterekin hasi nintzen.

• **Eta zela hasi zinen?**

• Batez ere, nire aita ere horretan ibiltzen zelako hasi ginen. Futbolearen ere ibiltzen nintzen, baina entrenamenduak egun berean izaten zirenez, azkenean futbola utzi eta pelotan jarraitu nuen gustokoagoa nuen eta.

• **Zela ikasi duzu?**

• Asko entrenatu eta gero, gutxika-gutxika maneju eta teknika hartuaz joaten zara. Astean 2 egunetan entrenatzen dut, martizen eta

eguenetan, bakoitzean ordu t'erdi bat gutxigorabehera. Zapatu eta domeketan partiduak izaten ditut. Ez dauka zailtasun handirik, ibiliz hartzen da teknika.

• **Banaka edo partidekin jokaketan duzu?**

• Normalean binaka jokaketan dut. Bakarka hobeto konpontzen naiz frontoi osoan denean eta binaka, barriz, 4 t'erdi barruan denean.

• **Zein da irabazi duzun azken txapelketa?**

• "Liga Vasca, Navarra, Rioja" koa irabazi nuen eta ondoren euskadiko txapelketa jokatu eta galdu egin nuen. Txapelketa horretan, bietan pelotari beraren

aurka jokatu dut, iparraldekoek ez zutelako jokaketan. Bietan Alonsoren aurka jokatu dut.

• **Ze emaitzarekin irabazi duzu?**

• Lehenengoan 18-11kako emaitzarekin. Hasieran galtzen joan nintzen eta gero 10era arte enpatatzen, baina hortik aurrera irabazten.

• **Profesioletara pasetako asmorik bai?**

• Lehenengo afizionatuetan partidu asko jokatu behar dira eta gero ikusi egin behar da, Hor ikusten da zelako maila daukazu. Afizionatuetan urte batzuk pasatuta gero, zenbat pelota galtzen diren ikusten da eta gero eta gutxiago galtzen diren etb.

• **Etxean zer esaten dizute?**

• Etxean oso pozik daude eta asko animetan naute, bai ni eta baita nire anaia ere, biok gabiltza horretan eta. Gainera aita ere oso sartuta dago pelota munduan.

• **Zela ikusten duzu gaur eguneko pelota?**

• Gaur askoz hobeto dago, gero eta indar gehiago hartzen dabil. Gainera orain enpresak ere sartu dira pelota munduan, euren laguntza eskainiz.

• **Eta Atxabaltan?**

• Nahiko ume hasi da, gero eta gehiago dago infantiletan eta nahiko ondo jokaketan dute eta posibilitateak era badauzkate.

• **Atxabaltan pelotarako leku egokiak daude edo zerbait falta da?**

• Nire ustez kaleko frontoia itxi egin behar litzateke. Neguan hotzarekin eskuak mindu egiten dira eta bildurrez jokaketan dugu.

Bestalde, askotan garbitu behar izaten dugu hauts asko sartzen delako.

• **Orain hasi direnei zer esango zenieke?**

• Askok hasi eta itxi egiten dute eskuak mintzen zaizkielako, baina hori hasieran normala da, gero egin egiten dira. Beste batzuk berriz futbola nahiago izaten dute eta futbolearen jarraitzen dute.



Otalazelaiko XV. Kross Herrikoa

Maiatzaren 9an urteroko Otalazelaiko Kroos Herrikoa egingo da Urkuluko urtegiari. Bertan edozeinek parte hartu dezake eta honako hauek dira arauak:

Sailkapena honela egingo da: gizakumeetan, juniors, beteranoak eta seniorsak eta emakumeetan, absolutoa.

Gizakumezkoetan beteranoek eta seniorrek buelta bi egin beharko dituzte eta emakumeek buelta bat.

Zelaikua baserri aurrean emango zaio hasiera lasterketari goizeko 11etan

eta 12.30etan amaiera.

Antolatzaileek izendatzen dituzten ibilgailuek besterik ez dute izango lasterketa jarraitzeko aukera.

Korrikalariek bularean eta agerian eroan beharko dute zenbakia.

Dorsalen banaketa 9.30etatik 10.30ak arte izango da.

Gipuzkoako atletismo federazioko epaileek konometratuko dute lasterketa eta Urkuluko probak Gipuzkoako Herriko Krosseko 2. challengegerako puntuatuko du.

Antolatzaileek ez di-

tuzte bere gain hartzen korrikalariei zein ikuslegoari gerta dakizkiekeen kalteak, lasterketarekin zer ikusirik ez dutenak..

Proba horretako sariak maila bakoitzerako desberdinak izango dira.

Horretaz gain lasterketako record-a (42'10") gaintzen duenak 25.000 pztako saria izango du. Eta partehartzaileek kamiseta bat jasoko dute.

Izen ematea 300 pztakoa da eta maiatzaren 4tik 8ra arte Kirol Etxean edo proba hasi baino ordu t'erdia lehenago eman daiteke.

■ Apirilaren 17 eta 18an Dorletako txirridulari taldeko alebinek eta infantilek Atxabaltako industrialdean korritu zuten. Kadeteak, Arrasaten lasterketa on bat eginez eta 1. urteko kadeteak Lazkaon, hemen Sedano 6. postuan sartu zen. Jubenilak Zarautzen izan ziren, bertan ere lasterketa ona egin zuten Dorletako txirridulariek. Maiatzak 1ean infantilek eta alebinek Eskoriatzan korrituko dute.

■ U.D.Ako batzorde zuzendatzaile-rako hautagairik aurkeztu ez denez, osteria hautagaien zerrenda aurkezteko epea zabaldu da. Zerrendak 10. postakutzara bialdu maiatzaren 8 baino lehen.


Fran Miguel, Euskadiko xake txapelketan bigarren

Fran Miguelek jubeniletako euskadi mailako xake txapelketan bigarren geratu zen. Bertan 20 bat izan ziren parte hartzaileak. Orain ia ziur Espainiakora joango dela.

Berak dioenez dauka

Espainiakorako esperantza handirik. Postu ona izango litzateke lehenengo 15en artean geratuko balitz. Txapelketa horretan gehiago ikasten saiatuko dela esan digu. Hori uztailaren lehenengotan

izango da eta bertara autonomia bakoitzetik 2 edo 3 joango dira. Espainiakora irabazten duena Europakora joango da eta handik mundukora, baina hori Frank urrin ikusten du.



San Anton eta krisia

Euskaldunen artean saildu zaletasun handia izan arren, eta askotan saildu askoren beharra eduki arren, bi daude batipat hurbilago: San Antonio eta San Anton.

San Antonio, ekainaren 13ko saildua, oso ospetsua da gure artean, batez ere mutil eta neska zaharren artean. Oraindik badaude urtero-urtero

Urkiolaraino joaten direnak nobio-a eskatzera; beste batzuk ordea horrela soltero mantentzen dituzte. Ez dakigu norainoko arrakasta izaten duen San Antonio honek, entzuna bai diogu atso bati beste neska zahar lagun bati hau esaten:

- "zeini eskatzen? Guapuai ala zatarrari?...Argi ibili hai; honek, berak hartuko lauken ta,

gustora nobixia!"

Lotsagabekeria hauek alde batera utziz, esan beharra dago Aozaratzako elizan dagoen San Anton, benetan guapo dela; hauda, taila ederra, ondo eta fin landua. XVI. mendekoa agian. Bizar finak eta beltz jantzita, bere eskutik besoa maku-lua darama eta ezker aldean liburu bat eta errosarioa. Txerri txiki bat du lagun. Mementu honetan taila zeharo hondatuta dago, batez ere atzekaldek, sitsak eta sere-nak janada.

San Anton hau, Okina inguruko zelai baten kokaturiko ermintta desagertu zenean, elizara ekarri zuten. Tokiari oraindik bertakoek "jardina" esaten zioten (ur azpian dago). Saildu hau, baserritarren artean debozio handiko saildua zen eta da. Oraindik urtarrilak 17an urtero meza ematen da. Denbora gutxi arte auzoko emakumeek "gaur-

dia" egiten zuten bere aurrean.

Entzun izan dugunez lehengo San Anton eguna oso aipatua izaten zen, predikadorea, erromeri eta guzti. Baina krisiak ez du barkatzen, eta ordu-rarte 20 erreal ordaintzen bazitzaion predikadoreari, honek jasoera eskatu zuen:

- "Badakizue...dana karutuz doia ta..."

Hor biltzen dira auzoko etxeokoa-nok eta eztabaida bizian aritu ere. Hala-ko batean, Urtioko Kristobalek hitza hartu eta baserritarren zorrotasuna adieraziz honela esan ei zuen:

- "Beno...ba...20 errieleraino predikatu deixela bai ta...gero kitto...ixildu deila"

Hor non bukatu ziren predikadorea-ren azalpen reibindikatibo guztiak. Krisiak ez du barkatzen.

**A. Antxia Leturia
I. Urreta**

Promesa barriak



J.J. Aretxaga

Aretxabaretako lobbya Arrasaten botere faktiko bat dela diote. Azkenetaiko Arrasate Press batean esaten zen atxabaltar asko zegoela Arrasateko karguetan. **Xabier Zubizarreta**, alkatea. **Jose Luis Eraña**, Udaleko pertsonal-burua. **Nati Abasolo**, Euskaltegiko burua. **Jose Luis Etxebarria**, Udaltzainburua. Baina bat behintzat falta zen: Arantzazu Loidi, Arrasate Press-eko zuzendaria (besteak salatu eta bere burua gorde). Datu polit bat: Aretxabaletan jaiotako 491 pertsona bizi dira Arrasaten. Bueno, Bedoñako helduak zela kontatu dituzten ez dakigu.


Gustoko saltsa izango dute laster herriko mutiko batzuk. Plazan mutiko hauek beti futboleko ikusita **Jose Antonio Zangituk** idea bat euki zuen: Atotxara eroatea. **Merxe Lopezek** lagunduta, errealekoekin kon-

taktoak egin eta lortu du gura zuena. Maiatzaren 9an Real-Celta partidua ikustera joango dira, eta gainera errealekoekin argazkiak aterako dituzte. **Ibai, Martin, Joseba, Eñaut, Mikel, Gorka, Asier** eta **Unai**, futboleko promesa barriak autobusean joango dira euren familiakoekin.

Aurreko alean aipatu nuen koruko jendea ahots barrien bila zebilela. Gizonezkoen ahots gazteak gura zituzten. Orain jakin dut batzuk animatu direla. **Iñigo Aizpurua, Jabier Markos, Jokin Bengoa, Aitor Aranzabal, Jabier Agirre 'Piti', Jose Migel Uribarren** eta **Jose Jabier Irure** dira herriko baritono eta tenor promesa barriak. Horreitako batzuk gregorianoa ikasi orduko...

Mercedes Merchante izeneko neska batek Maitane bat irabazi du. Ez, aldrebes. **Maitane Merchante** izeneko neska batek Mercedes bat irabazi du. Ez da broma. 6 urteko neskatxa atxabaltar honek Mercedes markako kotxea irabazi zuen telebistako konkurso batean. Bukatu aurretik, oharra. K-2 espedizioko sudadera eta frakak salgai daude. Moda markatzen dute Atxabaltan.

KOMIKIA



1 ZAPATUA

- Zاراia Mnedi Taldearen urteera: **gazte-txoekin akanpada.**

2 DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Aizorrotz Uxar.**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Alegia - Gereñu - Salvatierra - Nabaja - Atxabalta (96 km).**

- Futbol partidua: **U.D.A - Hondarrabia F.E**

5 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 7retan Udaletzeko ganbaran Elkarri talde lokalaren prentsaurrekoa.

7 EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 7retan Durana Kalean, **T rapu zaharra** Antzerki taldearen eskutik "**Visto y no visto**" Antzerkia.

8 ZAPATUA

- Eskoriatzako Kirol-Etxean gaueko 10etan, : **Berto jaialdia.** Bertan izango ditugu, Ion Lopategi, Imanol Lazkano, Ibon Iturriaga, Aitor Sarasua, Joxe Agirre eta Jesus Mari Irazu.

9 DOMEKA

- **Otalazelaiko XV. kross herrikoia** Urkulu urtegian.

- **Herri Urrats** eguna. Beinkek antolatutako autobusa: izena emateko epea maitzak 7an arratsaldeko 6etan

bukatuko da. Arlutz eta Beinken.

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Xaxote.**

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: **Tologorri.**

- Zikloturisten urteera: **Atxabalta-Canpazar-Amorebieta-Ceanuri-Barazar-Villareal-Aretxabaleta.**

12 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 3.30etan Zاراia zineman **Peter Roberts**en eskurik **Un hombre solo** Antzerkia.

ARETXAZOKA

Lana

- Neska bat gertu etxeke lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 (Maika).

- Zure etxetik lan eginez dirua irabazi gura baduzu, bidali sobre bat helbide honetara: 161 postakutxa.

Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- Larunbat goizetan ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

Lana

- Emakume bat etxeke lanak, portalak garbitzeko eta abar egiteko prest dago. Tfnoa: 71 46 24

Salerosketak

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT


GARAJE
OSKAR
 Basabe poligona
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

BASABE
JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

LEIBAR
 ARRAINDEGIA

 Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
 ARETXABALETA


 Mitarte 21, behea
 Tfnoa: 79 79 79
 ARETXABALETA


T X I L A R R A

ELIKADURA
BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA

Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!

 BAZKARI
 ETA AFARI
 ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN

RKL
INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S .A
 Mitarte, 23
 Tfnoa: 79 96 66


IMANOL ARRAZOLA
KLINIKA DENTALA
 Otalora, 18 - 1. D
 ☎ 79 93 55

Mobiliario
ARENZA
 ALTZAIRUAK
 DISEINUA
 APAINKETA
 Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA
Aholkularitza
 Andra Mari Auzunea,3
 ☎ 79 29 26
 ARETXABALETA

ARETXABALETA
ITURGINTZA
 Durana, 16
 Tfnoa: 79 17 53
 ARETXABALETA

OSKAR
HARAGITEGIA
 Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN
 Loradenda
 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zatoz %7ko Superlibretaren abantailak ezagutzera.

Superlibreta, duen errentagarritasun handiak eta sinpletasunak bereizten du. Baina, zuk, gainera, jakin beharko zenuke...

- helbideratze guztiak onartzen dituela: nomina, pentsioa, ordainagiriak, kontribuzioak, e.a.
- kobruak, ordainketak eta eskudiruaren erabilerak formaliza daitezkeela gure edozein sukurtsaletan.
- kutxazain automatikoetan eragiketak egin eta dendetan ordaintzeko ServiRed Visa Txartela dohainik lor daitekeela.
- ez duela komisiorik.
- interesak egunero kalkulatu eta azaroaren 30ean ordaintzen direla denak batera.
- urteko interes finkoa, UTBa, %7,15ekoa dela 100.000 pta.tik gorako saldoetan, eta %0,10ekoa kopuru hori baino saldo txikiagoetan.
- Euskadiko Kutxaren ohizko libreta Superlibretaz aldatzea oso erraza dela, helbideraketa, txartel eta abarri ez baitie eragiten. Bakar-bakarrik libreta aldatzen da.